

DEKRETUA

Dirulaguntza izendunak ematea

ESKABIDEAREN DATUAK**Interesduna:** G95966016 – Bagabiz euskara elkarte**Programa:** Kale Neurketa, Euskaraldia, eta Euskararen eguna**Ekitaldia:** 2022**Erregistro zk.:** 2022-E-RE-3025 (2022/05/18) eta 2022-E-RE-82022/05/24)**Espediente zk.:** 53/2022**ARAUDI OROKORRA**

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.a) eta 28. artikulua eta Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDko 65. artikulua.

ARAUDIA

Dirulaguntzen Emakida arautzen duen Udal Ordenantza Orokorra¹ eta aldatua².

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa: Udalak 2020-2023 epealdirako onetsia³.

Transferentzia Arrunten Eranskina: 2022ko ekitaldirako Aurrekontuko Transferentzia Arrunten eranskinean, 24.3351.481.08 aurrekontu-partidan, *Bagabiz euskara elkarte*ari 5.000,00 euroko dirulaguntza izenduna ematea aurreikusita dago.

AURRETIAZKO TXOSTENAK

Hezkuntza eta Euskara teknikariaren aldeko txostena: 2022/05/27

Kontuhartzaile Orokorraren aurretiazko fiskalizazio txostena: 2022/05/27.

ERABAKITZEN DUT:

Lehenengoa.- Ondoren aipatzen den entitateari / elkarteari dirulaguntza ematea, hain zuzen ere, adierazten den zenbatekoan, eta zehazten den programarako.

Entitatea / elkarte	IFK	Programa	Zenbatekoa	Aurrekontu partida
Bagabiz euskara elkarte	G95966016	Kale Neurketa, Euskaraldia eta Euskararen eguna	5.000,00€	24.3351.481.08

Bigarrena.- Aipatutako entitateari / elkarteari onetsitako kopurua ordaintzea, aldez aurretik dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat sinatuta.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinarazi eta Udaleko zerbitzu ekonomikoari helaraziko zaie.

SINADURA ELEKTRONIKOA

¹ BAO 172 (2005/09/09)

² BAO 23 (2008/02/01)

³ BAO 39 (2020/02/26)